


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 11 / 512. zenbakia

ELOSUKO BIHAR, GOIZEKO BEDERATZIETAN FERIA



TXISTU KONTZERTUA: DONOSTIAKO BANDA BIHAR/14 • ERRETIRATUAK: HAMABOSTALDIA, ABIAN/15

GIDA 2003 abian!

Aurten ere, telefono partikularrak aurkitu ahal izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

ATREBENTZIAEZPADA/ Igarri dozu saihevide berrixak herrixari on egin dotzanik?



KARINA PINEDA
30 urte



PEDRO ZAFRA
66 urte



DOLORES HEIS
53 urte



MIGEL ANGEL ALBISTEGI
49 urte



MARI JOSE GARCÍA
32 urte



ANGEL GALLEGO
74 urte

Lehen, egunero hamar bat minutu egoten nitzan geldi Ertzain etxiaren onduan. Hori, goizetan pasatzen nitzanian. Ondiokan goizez ez naiz pasau, baiña uste dot igarriko dala.

Ikusi, behintzat, ikusten die ibilgailuak handik pasatzen. Neuk ez dakit, baiña esan doste Bergararik Antzularako urteeria ez dagola oso ondo. Errotondia egin biharko ebela.

Neu ez naiz pasau eta ez dot ezer igarri, baiña entzun dot Bergararik Antzularako bidia hartu ezker, nahiko gaizki dagola, istripuren bat gertatzeko moduan. Ea ez dan ezer pasatzen.

Herri barruko trafiko nahi-kotxo kendu dabela uste dot. Antzuolatik Arrasatera jun bihar dabenak, behintzat, ez dauka zertan barrura sartu, lehengo moduan.

Neuk uste dot oso ondo dagola. Antzuolakua naiz eta Arrasaten egiten dot lan, eta egunero pasau bihar izaten naiz handik. Hiru bat minutuan saihevide osua gurutzatzen dot.

San Antonioko bidegurutziaren mesede haundia egin dau saihevideak. Motorrian egunero-egunero juten naiz, Zubixaurraiño, eta lehen estaziñoraiño egoten zan illaria.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK NOIZ ZABALDUKO DUTE? Halaxe galdetu eta kexatu zaigu aste honetan irakurle bat: ea Ostetako bidea, hau da, Munibe plazaatik behera doan kaleka noiz zabalduko duten. Haren esanetan, aspaldi esan zuen Udalak zabaltzekoa zela, baina urtetik gora darma itxita. Iparragirre zein Ibargarai kaleetarantz joateko oso egokia iruditzen zaio irakurleari; baina horretarako zabalik egon behar. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

Elosuko feria zapatuan

Elosun 24. Mendiko Ganadu Feria izango da. Goizean feria eta arratsaldean herri kirolak izango dira.

KIROLAK / 10

Bergara-Gure Txokoa

Preferente mailako futbol taldeak Berako Gure Txokoa hartuko du zapatuan Agorrosinen.

KULTURA / 14

'Oliver' musikala Bilbon

Begarako Orfeoia eta Musika Eskolak 'Oliver' musikala egingo dute urtarrilean Euskaldunan.

IRAKURLEAK MINTZO

MATXINATUEN KORRIKALDIA DOMEKAN BERGARAN

Gutun honen bidez egunotan, zehazki, urriaren 6tik 19ra bitartean burutzen ari den ekimen baten berri eman nahi dizuegu. Ekimen honek Matxinatuen Korrikaldia du izena, eta Euskal Herriko gazte mugimenduak eta gazteriak, bereziki, darama aurrera.

Urriaren 13an, domeka, gure eskualdean izango dugu, eta noski, baita Bergaran ere. Hori horrela, zuek ere parte har dezazuen deialdia luzatzen dizuegu.

MATXINATUEN
KORRIKALDIKO TALDE
BULTZATZAILEA

BESTEKEKESANA

“Hasiera ona egin dugu eta gozatu egin behar dugu hurrengo partidura arte; izan ere, aspaldi ez genuen

horrelako une onik. Partiduaren azken minutuetan iazko sufrimendua gogoratu genuen, baina horrela, garaipena gozoagoa izan da. Partidua oso zaila izan da, Valladolidek oso ondo jokatu du eta bandak tapatu dizkigu. Horregatik partidua irabazteak bere meritua izan du. Bolada ona mantendu behar dugu.

AGUSTIN ARANZABAL /
Realeko kapitaina
'El Diario Vasco' / 02-10-07

BERAIEKDIÑOÈ / Andres Osa 'Sakona'



Elkarren beharra

Urretxu-Zumarragan ospatutako igandeko Kilometroak gauza ximple bat erakutsi digu: Euskal Herrian elkarlana esker burutu direla herriarentzat onuragarriak izan diren ekintzak.

Kuriosoa da ikustea, zirkuituko zinta ebaki atariko argazkia: ikastola munduan ari diren arduradun mordoak, politikoki alderdi desberdinetan kokatzen direnak, denak elkarrekin. Baina politikari desberdinetako buruzagiak, berriz, taldetxoak sortuz, begiak erne dituztela, aurkariak non, bestaldean jartzeko.

Argazki triste horrek beste zeharo desberdin bat ekarri zigun burura: ETak su-etena sortu zuen garaikoa. Oreretan Kilometroak. Kolore desberdinetako politikoak elkarrekin, begiak erne elkarganatzen, aurkariarengana hurbildu nahian, epa! Hemen gaudek, egun on! Urte gutxitan zelako aldaketa, okerrerako, noski.

Noiz arte? Urretxu-Zumarragako ikastolak aukeratu duen leloak "Elkarren Beharra" ez al zuen batere eraginik izan politikoengan? Ikastolen eredia jarraitu behar genuke. Ikastolen hastapenetan elkarren beharra sentitzen zen eta elkarlana ezinbestekoa zen.

"Inork uste badu herri eraikuntzan elkarren beharrik ez dugula, itsua eta gaiztoa da"

Orain, zoritxarrez, ikastoletan ere izpiritu hau galtzen doa. Berreskuratu beharko da. Helburu berdina izanik elkarlana eta elkarkidetzaren sendotua behar gaude.

Une zailak datoz, etorri behar direlako noski. Egungo

legeak txintxo eta zuzen betez gero, inoiz ez da gurdia irauliko, jaunak. Horrela ez da inoiz Euskal Herria eraikiko. Momentuko legearekin txintxoak izanik Feudalismoak ere bere horretan jarraituko zuen, Frantziako Iraultzarik ez genuen ezagutuko... Ikastoletan elkarren beharra dago. Politiko abertzaleen artean ere bai. Inork uste badu herri eraikuntzan elkarren beharrik ez dugula itsua ez ezik gaiztoa ere bada.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILERAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elepuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 12**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 13**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 14**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 15**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 16**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 17**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: 09:30, 12:30. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | San Lorentzo |
| Sierbak | Zapatuak: 20:00. |
| Lanegunak: 19:15. | Angiozar |
| Zapatuak: 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Domekak: 11:30, 13:00. | Moja |
| Osintxu | Zaharrak |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 9:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 11:00. |
| Elosu | Mizpirualde |
| Domekak: 10:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Ubera | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: 10:30. | Antzuola |
| San Juan | Domekak: 09:00, 11:30. |
| Domekak: 11:00. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Elorregi | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1947AN JAIOTAKOAK
1947an jaiotako enafaria urriaren 19an, Tartufo jatetxean. Joan-etorria egiteko autobusa egongo da. Izenematea (42 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke.

1955EAN JAIOTAKOAK
1955ean jaiotako enafaria urriaren 26an, Erreki jatetxean, 21:30ean. Izenematea (10 euro) Errekin bertan urriaren 22ra arte.

1959AN JAIOTAKOAK
1959an jaiotako enafaria urriaren 26an, Tartufo jatetxean. Afari egunean 20:00etan batuko dira, frontoian, argazkia ateratzeko, eta 21:00etan, handik bertatik irtengo da autobusa, afaltzera joateko. Izenematea (30 euro), Kutxan irekitako kontuan.

BEART-EN MARGO IKASTAROAK
Beart herriko artisten elkarteak sei eta hamabost urte bitarteko gaztetxoendako Margo ikastaroa antolatu du. Izenematea 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana) telefonoetan. Bestalde, Rikardo Azkargortak ere Margo ikastaroa emango du (hasiera eta sakontze mailak). Hainbat teknika landuko dituzte. Izenematea eta argibideak: 943 76 50 86 edo 656 72 44 49.

JARDUNENAGENDA

NAFARROA OINEZERA JOATEKO AUTOBUSA
Jardun Euskara Elkarteak urriaren 20an Tuteran ospatuko den *Nafarroa oinezera* joateko autobusa antolatu du. Autobus txartelak 7 eurotan salgai jarriko dira. Izena emateko epea urriaren 16ra arte zabalik dago. Argibideak Jardunen, Errotalde Jauregian, edo 943 76 08 19 telefonoan.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Asier Altuna solaskide, Venezuelatik bueltan

Andoainen Irudi eta Soinu ikasketak egin ondoren, Venezuelan urtebete eman zuen lanean Asier Altuna *Kixi*-k. Handik bueltan, Venezuelan baliabide gutxi-ekin eta presaka grabatzen dela esan zigun. Bideo formatuan telebistarako filmak egiten, publizitatean eta zineman jardun zuen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Loka"



Kili-koloa, kili-kolo egotea.
- *Mai ankiak lokia dauka.*
- *Agiñ bat loka-loka daukat.*
- *Baldosa mordua loka dago.*

ASTEKOFILMAK

'EL MISMO AMOR, LA MISMA LLUVIA'

ZUZENDARIA: JUAN JOSE CAMPANELLA.
AKTOREAK: RICARDO DARIN, SOLEDAD VILLAMIL, ULISES DUMONT.

HARIA. Jorge Pellegrini idazleak 20 urteko harremana izango du *Laura*-rekin, gorabehera handiekin. Argentinako historia ere aldatuz joango da...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean 22:30ean; zapatuan 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:15ean eta astelehenean 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'OPERACIÓN TRIUNFO: LA PELÍCULA'

ZUZENDARIAK: JAUKME BALAGUERÓ ETA PACO PLAZA.

HARIA. Azken urteotako telebista saio arrakastatsuenetako bat izan da *OT*, eta orain, Rosaren, Bustamanteren, Bisbalen, eta abarren gorabeherak zineman ikusteko aukera dute haien zaleek.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan eta 19:30ean eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 7	6 °C
MAXIMOA Astelehena, 7	25 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	16,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	21 °C	13 °C	- l/m ²
Eguena, 3	21 °C	12 °C	0,1 l/m ²
Egubakoitza, 4	23 °C	15 °C	- l/m ²
Zapatua, 5	21 °C	14 °C	- l/m ²
Domeka, 6	24 °C	10 °C	- l/m ²
Astelehena, 7	25 °C	6 °C	- l/m ²
Martitzena, 8	21 °C	8 °C	16,8 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

'EL SECRETO'

ZUZENDARIA: VIRGINIE WAGON. AKTOREAK: ANNE COESENS, MICHEL BOMPOIL, TONY TODD.

HARIA. 2000. urteko Cannesko Zinema Jaialdian aurkeztutako film horrek harrera beroa izan zuen. *Marie* eta *Francois* elkarrekin bizi dira aspalditik, baina *Marie*-k ez du bigarren seme-alaba bat izaterik nahi. Bere lanagatik *Bill* izeneko estatubatuarra ezagutuko du *Marie*-k...

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Egue-
nean, urriak 17, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

FERIA/ Arratsaldean herri kirolak izango dira: Mugertza eta Barberena aizkolariak eta Goenatxo II.a eta Ostolaza harri-jasotzaileak arituko dira

Bihar, zapatua, 24. Mendiko Ganadu Feriak ekitaldi ugari batuko ditu Elosu auzoan

MONIKA BELASTEGI

Pilarika Egunarekin bat eginik, bihar, zapatua, Mendiko Ganadu Feria egingo dute Elosun. Goizean feria izango da ekitaldi nagusia eta arratsaldean, herri kirolak. Auto ilarak ekiditeko, egun osoan autobus zerbitzu berezia egongo da Elosura igo eta jaisteko.

Dagoeneko prest dago bihar, zapatua, Elosun egingo duten 24. Mendiko Ganadu Feriako egitaraua. Elurtzikik, Elosuko, elkarteak, antolatu du feria, Bergarako eta Azkoitiko udalen laguntzarekin, eta goizeko bederatzietan hasiko da. Ferian hainbat arrazatako behiak, zaldiak, ardiak, eta beste hainbat animalia ikusteko aukera egongo da.

Ganaduaz gain, beste hainbat gauza ere egongo da ikusteko ferian, besteak beste, artisauak, talogileak, eta bestelako salmentatuak. Horrekin guztiarekin batera, Aitziber eta Lutxurdi trikitilariak ferriako giroa alaitzen arituko dira egun osoan barrena.

Urtero egiten duten moduan, ferian parte hartu duen ganaduaren lehiaketa egingo dute antolatzaileek, eta sari banaketa 13:00etan izango da.

ARRATSALDEAN, HERRI KIROLAK

Goiz partean ganadua eta salmenta postuak ferriako ardatz nagusia izango dira, eta arratsaldean, berriz, herri kirolen jaialdia. 17:00etan hasiko da eta aizkolariak eta harri-jasotzaileak izango dira. Aizkolariak Mugertza eta Barberena izango dira, eta harri-jasotzaileak, Goenatxo II.a eta Ostolaza. Ekitaldian sei saio izango dira, hauek, besteak bes-



ARTXIBOA

Inguruko herrietako abeltzainen ganadua ikusteko aukera egongo da bihar, zapatua, Elosun.

te: 250 kiloko harri errektangularrarekin bi minutu egin beharko ditu Goenatxo II.ak; Ostolazak 200 kiloko harri errektangula-

rrarekin jardun beharko du bi minutuz. Prueba mistoan, aizkolariak enbor bana nork lehenago ebaki arituko dira, eta harri-jaso-

tzaleek 125 kiloko harri kubikoarekin bost jasoaldi egin beharko dituzte. Horrez guztiaz gain, Haratz Mugertza eta Ugaitz

Mugertza aizkolari gazteen erakustaldia ere izango da.

AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Feria egunean auto ilarak eta aparkaleku arazoa ekiditeko asmoz, antolatzaileek autobusa jarri dute aurten ere feriarako. Lehenengo autobusa 10:00etan abiatuko da, San Martin plazatik, eta azkena 19:00etan jaitsiko da, Santutxutik. Bien bitartean, etengabe arituko da autobusa gora eta behera. Joan-etorriko autobusak 2,40 euro balioko du.

Goizean, 09:00etan irekiko dute feria eta ganaduaren sari banaketa 13:00etan izango da

17:00etan, aizkolariak eta harri jasotzaileak erakustaldia egingo dute

Auto ilarak ekiditeko autobus zerbitzu berezia egongo da Elosura igo eta jaisteko

Mintzalekua zabaldu dute Zubiaurren

MONIKA BELASTEGI


Uztailean zabaldu zuten Zubiaurre kaleko Mintzalekua. Telefono eta fax zerbitzua ditu eta Pakistango etorkin batek zabaldu du, Ibarra taberna zegoen lekuan, hain justu ere. Astelehenetik domekara egoten da zabalik, 10:00etatik 23:00etara, eta hango arduradun Chazanfar Alik esan duenez, etorkinek erabiltzen dute, batez ere, Ekuador, Pakistan, Kolonbia, Errumania eta Marokokoek, besteak beste. Hala ere, edonon dagoela zabalik dagoela adierazi du.

DEI MERKEAGOAK EGITEKO AUKERA

Mintzalekuan sei telefono kabina daude, eta dei merkeagoak egiteko aukera eskaintzen du. Esaterako, minutu bateko deiak Ekuadorrera 40 zentimo balio du, Pakistanera 55 zentimo, Kolonbiara 27 zentimo eta Argentinara 33 zentimo.

Chazanfar Aliren esanetan, batez beste lau bat lagunek erabiltzen dute egunero Mintzalekua, nahiz eta domeketan gora egiten duen kopuruak.

Telefono eta fax zerbitzuaz gain, Pakistango jakiren batzuk ere saltzen dituzte.



MONIKA BELASTEGI

Zubiaurre kalean zabaldu dute Mintzalekua, Ibarra taberna zegoen lekuan.

LABUR

Domekan helduko da Matxinatuen Korrikaldia herrira

Domekan, hilak 13, helduko da herrira Matxinatuen Korrikaldia. Antzuolatik etorriko da eta 12:30 aldera helduko da San Antoniora. Herri osoan barrena ibiliko da, jai giroan, eta 14:00etan bazkaria egongo da, Artatse elkartearen. Bazkarirako txartelak Arrano, Kortazar eta Pol-Pol tabernetan daude salgai, sei eurotan.

Bazkalostean agurra egingo diote Korrikaldiari, Fraiskozurin, eta Arrasaterantz abiatuko da. Han manifestazioa izango da.



MONIKA BELASTEGI

Ganga azpiak konpontzeko 25 metro inguruko altuera duten aldamiok jarri behar izan dituzte.

ONDAREA/ San Migel aldea bukatzeaz da; sakristau etxea eta fatxadaren ere hasi dira lanak

Santa Marinaren bigarren zatia berritzen hasiko dira

MONIKA BELASTEGI

Santa Marina parrokoa zahar-berritzeko lanak aurrera doaz. San Migel aldea bukatzeaz dago eta astelehenetik aurrera erretaula aldeari eta Errosario-ko Amabirjinaren aldeari ekingo diote. Horrez gain, sakristau etxea ere konpontzen hasi dira.

Santa Marina parrokia berritzeko lanak aurrera doaz. Helburua da eliza barruko eta kanpoko aldetik berritzea, eta bateko zein besteko zaharberritze lanak uztailean hasi zituzten. Dagoeneko nahiko aurreratuta daude lanok eta datorren astean urrats berri bati ekingo diote.

Barruko aldeari dagokionez, hirutan banatu dute eliza konpontzeko lanetarako: San Migel aldea (eskumako aldea), erretaula aldea (erdikoa) eta Errosario-ko Amabirjinaren aldea (ezkerraldea). San Migel aldea da, hain zuzen, konpontzen hasi diren lehena, eta hantxe egin beharreko lanak ia bukatuta daude.

Bobeda azpiak eta goiko aldeko paretaren zati asko egoera kaskarrean zeuden, batetik, urtetako itoginen ondorioz, eta, bestetik, berogailuaren beroaren ondorioz. Horiek guztiak konpondu egin dituzte. Bestalde, dekorazio elementuak ere zaharberritu egin dituzte, besteak beste, kapituletako dora-tuak eta ganga azpiko dekorazioak. Horrez gain, erlaitzak eta pilastrak garbitu egin dituzte,

baita gangen gaineratik argi instalazio berria jarri ere.

Sakristau etxeari dagokionez, han ere hasi dituzte egokitze lanak. Hasierako asmoa bigarren fase baten konpontzea zen, baina lan hori aurreratzea erabaki dute la adierazi du Xabier Azkoitia Santa Marinako parrokoak. Sakristau etxea oso egoera kaskarrean dagoela adierazi du, eta dagoeneko hustu egin dute, zaharberritze lanak egiteko.

Gaur egun hiru solairuko etxea den arren, berriro ondoren bikoa izango da eta konektatuta egongo da sakristiarekin. Bestalde, igogailua ere jarriko dute, eta horrendako egitura prestatzen hasi dira dagoeneko.

*Eliza hirutan
banatu dute lanei
ekiteko; San Migel
aldea ia bukatu dute
konpontzen*

*Sakristau etxeko
lanak aurreratu
egin dituzte eta
fatxadetako baten
ere hasi dira lanak*

APIRILERAKO AMAITUTA

Urriaren 14tik aurrera eraikinarren bigarren eta hirugarren zatietan erretaula aldea eta Errosario-ko Amabirjinaren aldea hasiko dira lanean.

Horretarako, aldami guztiak eramango dituzte alde horretara, eta San Migel aldean egindako lan berbera egingo dute.

Eliza barruko lanak bukatzeko, korua izango da konponduko duten azkena. Hala ere, korura igotzeko eskailearen paretak pikatu dituzte dagoeneko. Koruaren barruko aldea gainerako lan guztiak bukatu ondoren egingo dituzte. Baita organoak garbitu ere.

Martxorako edo, beranduen, apirilerako eliza barruko lanak amaituko dituztela adierazi du Xabier Azkoitia parrokoak. Haren esanetan, lanak bide onean doaz eta aurrez ezarritako epeak bete egingo dira, seguruenik.

ELIZAREN KANPOKO ALDEA

Elizaren barruko aldeko konpontzekin batera kanpoko aldeko lanak ere aurrera doaz; Oxirondo plaza aldera ematen duen fatxadarenak, hain justu. Izan ere, lan horiek Oxirondo plazaren eraikitze lanekin lotuta daude, Udalak eta parrokiak sinatutako hitzarmenaren bidez. Akordio horren arabera, Udalak sakristau etxeko fatxada eta portiko txikia berritzeko konpromisoa hartu zuen parrokiarekin, eta lanak oso aurreratuta daude. Parrokiak fatxadaren gainerako zatia konponduko du.

Aurtengo udan 2.484 kontsulta jaso dituzte Turismo Bulegoan

MONIKA BELASTEGI

Ekainaren 1ean hasi eta irailaren 30era bitartean jaso dute Turismo Bulegoan kontsulta kopuru hori. Ekaina eta abuztua izan dira hilabeterik opa-roenak, eta bereziki Euskal Herriko bisitariak hurbildu dira.

Aurtengo udan 2.484 kontsulta jaso dituzte Turismo Bulegoan. Horietatik 540 bergarrek egingakoak dira; 781 euskal herritarrek; 780 espainiarrek; 296 Europatik etorritako bisitariak; 59 Amerikatik etorritakoak; eta 4 beste herrialde batzuetatik etorritakoak.

Datuek adierazten dutenez, kanpoko bisitariez gain, bergarrek ere erabiltzen dute Turismo Bulegoa. Eta kontsulta gehien ekainean eta irailan jaso dira.

Horrez gain, Euskal Herri barruko bisitariak ere ugari izan dira.

Uda osoan jasotako 2.484 kontsulta horiek hilabetez hilabete banatuz gero, ekainean, 527 kontsulta jaso ziren; uztailean, 492; abuztuan, 933 eta irailan, 532.

Horrez gain, bisitaldi gidatuei dagokienez, 57 egin dituzte, eta horietan 484 lagunek hartu dute parte.

BALANTZE POSITIBOA

Orokorrean, balantze positiboa egin dute Turismo Bulegoko arduradunek izandako emaitzen gainean, eta, iazkoekin alderatuz gero, oso antzerakoak izan direla esan dute.

Bestalde, Bergaran lo egin eta jateko kontsultek urte batetik bestera gorantz egiten dutela adierazi dute. Aurten, 69 kontsulta jaso dira, 173 lagunengatik.



ARTIBIDA

Ekainetik irailera bitartean 57 bisita gidatu egin dituzte Turismo Bulegoan.

Bihar hasiko du Jardunek asteburuko aisialdi programa

MONIKA BELASTEGI

Jardun euskara elkarteak zapatuan jarriko du abian 2002/03 ikasturterako aisialdi programa. 9 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago eta izena emateko epea zabalik dago.

Datorren zapatuan hasi eta ekainera bitartean zabalduko du Jardun euskara elkarteak asteburuko aisialdi programa. Bederatzi eta hamaika urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta gaztetxoaren arteko aisialdian euskararen erabilpena bultzatzea du helburu.

Asteburuko aisialdi eskaintza zapatuetan eta domeketan izango da, 16:00etatik 20:00etara, Arri-zuriaga jauregian.

Arri-zuriagako denetarikoko ekintzak egiteko aukera izango dute izena ematen duten neska-mutikoei: eskulanak, jolasak, mahai-futbola, ping-ponga...

Horrez gain, irteerak eta kanpaldiak ere egingo dituzte ikasturtean. Gainera, asteburuko aisialdi programan hainbat begirale izango dira umeen arduraren.

Programan parte hartzeko bazkide txartela egin behar da. Horretarako, bi argazki eramane behar dira Jardunen bulegora, eta 23 euro ordaindu. Dena dela, lehenengo asteburu honetarako ez dago txartela egin beharrik, eta doan izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 76 36 61 telefonora dei daiteke.

URRIKO EGITARAUA GERTU

Urriko egitaraua ere gertu dago dagoeneko: bihar, urriak 12, mahai-futbol txapelketa izango da eta ondoren, Triki Festa. Urriaren 13an, domekan, Ping-pong Txapelketa eta ondoren jolasak izango dira; urriaren 19an, *Etxe berri aire berri* egingo dute; urriaren 20an, mahai-jolasak; urriaren 26an, Trumilka Eguna ospatuko dute eta urriaren 27an, eskulanak.

ELKARRIZKETA

ENRIQUE ARRIOLA/MATIA FUNDAZIOKO GERIATRIA SAILEKO ZUZENDARIA

"Bizi kalitatea gizakion asmakizun kulturala da, zoriontasuna bezala"

MONIKA BELASTEGI

Enrique Arriola geriatra Bergaran izan zen martitzenean. San Joxepe elkarteak anfolatutako Kultur Hamabostaldiaren barruan, berbaldia egitera etorri zen. Osasun fisikoaz, ongizateaz eta eskumenaz jardun zuen.

Zer da zahartzea?

Zahartzea da organismoan eta funtzio psikikoetan denborak duen eragina.

Hainbat denbora daude, baina.

Bai. Biologikoa, funtzionala, eta kronologikoa. Kronologikoa da erlojuak markatzen duena; funtzionala da gauza ezberdinak egiteko gaitasuna markatzen duena. Eta biologikoa neurtzea oso zaila da: badira pertsonak 50 urterekin 40 dituztela diruditenak eta beste batzuek, aldiz, 70.


Bi kasuetan igarotako denbora bera da, baina eragina desberdina.

Bai. Denbora horrek organismoan izandako inpaktua desberdina da. Inpaktu hori norberearen mezu genetikoarekin dago lotuta, eta mezu hori guztiz pertsonala da, besterenezina eta bakarra.

Pertsonaren bizi izateko moduak ere badu zerikusia horretan, baita ingurumariaren eraginak ere, hau da, txikitari izandako elikadurak, aukerak, bizitokiak, lanak...

Gizon edo emakume izanda, zahartzea ezberdina da?

Bai, emakumeok luzeago bizi zarete, baina hori ez da abantaila bat. Hormona perfil ezberdina duzue, estrogenoak, hain zuzen, eta horrek egiten du odolean duzuen koipeetan lipido asko izatea. Eta lipido horiek ez dira gizonetan bezain arteroesklerotikoak. Zahartuz joan ahala, menopausia gertatzen da eta, ondorioz, hormonak desagertu egiten dira. Horrela, emakumezkoek dituzuen faktore babesle horiek desa-



M.B.

"Bizi kalitatearen kontzeptuak asko du subjektibotik eta gutxiago objektibotik"

gertu egiten dira. Eta urte gutxiren buruan emakumeok berdin du egiten duzue gizonezkoen hiltzeko arrisku kardiobaskularra. Azken baten, emakumeak babesuta egon dira denbora batez eta arriskua denboran atzeratuta izaten duzue.

Bizi kalitateaz ere jardungo duzu hitzaldian.

Kontzeptu horrek asko du subjektibotik eta gutxiago objektibotik. Badira objektiboki neurtu ditzakegun gauzak. Adibidez, pertsona batek mina badu ezin esan bizi kalitaterik duenik, edo deprimuta egonez gero berdin. Baina badira beste hainbat gai osasun arlotik kanpo dudenak: lana izatea, pozik sentitzea, gauza horiek guztiak bizi kalitatea dira, eta askotan ez dira kontuan hartzen. Bizi kalitatea gizakiaren asmakizun kulturala da. Zoriontasuna bezala. Zer da zoriontasuna? Zuk uste baduzu zoriontsu zarela, ba, bazara. Baina badira, esan bezala, neurgailu batzuk.

Deba erreka Gipuzkoako kutsatuena dela dio Aldundiak

MONIKA BELASTEGI

Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako eta Hiri-gintzako Departamentuak Gipuzkoako ibaien kalitatearen 2001eko ikerketa plazaratu du berriki. Debak Gipuzkoako kutsatuena izaten jarraitzen du.

Obra Hidraulikoetako Departamentuaren arabera, Deba ibaia- ren burutik Eskoriatzara iritsi bitartean oso ona da uraren kalitatea. Indize biotikoek puntuazio altuak eman dituzte egindako lagin guztietan, eta arrainak, batez ere, amuarrainak, egoera egonkorrean daude.

Hortik aurrera, baina, gauzak nahasten hasten dira. Txostenak gehitzen duenez, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalerrien inguruan isurketak gutxitu egin dira saneamendu lanei esker, eta ondorioz uraren kalitatea hobetu egin da. Hala eta guztiz ere, bi herri horietako isurketek eta

ondoren Arrasatekoak erabat degradatzen dute uraren kalitatea. Ondorioz, kutsatzaileen kontzentrazioa areagotu egiten da ibaian, eta indize biotikoen balioak gutxitu.

BERGARA IGARO ONDOREN KALITATE ESKASA

Txostenak gaineratzen duenez, hurrengo kilometroetan uraren kalitatea berreskuratzeko oztopo diren bi gertaera daude: batetik, Oñati ibaia- ren ur kutsatua; bestetik, Bergarako hiri eta industria isurketak. Hori horrela, Bergara igaro ondoren ibaiko uraren kalitatea oso eskasa da. Eta Arrasate-Elorregi tartekoa baino pixka bat hobea bada ere, ez dago arrainik.

Azkenik, eta konklusio moduan, Deba ibaiko kutsadura parametro kimikoetan jaitsi egin dela aipatzen du txostenak, iazko datuekin alderatuz gero, nahiz eta oraindik ere Gipuzkoako kutsatuena den.



ARTIBOIA

Iazko datuekin alderatuta, kutsadura parametro kimikoetan jaitsi egin da.

LABUR

Caritas-ek logela ekipamendua behar du herriko hainbat familiarendako

Caritas-ek logela ekipamendua behar du Bergarako hainbat familiarendako. Hori dela eta, ekipamendua emateko moduan duten bizilagunei Caritas elkartearekin harremanetan jartzeko eskatzen diete, goizez, honako telefonora deituta: 943 76 72 77.




Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295



Udazkeneko afari bereziak

Lagun talde eta koadrilendako aukera mundiala!

15,03 EURO BAKARRIK

Gainera, dantzalekua goizeko 03:00ak arte




MAHAIA GORDETZEKO ALDEZ AURRETIK DEITU BEHAR DA

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tel. 943 76 35 51

IKASLE GAZTEAK BERRIGARAN BISITARI

Aurreko egubakoitzean, urriaren 4an, Mariaren Lagundia ikastolako bi talde bisitari izan genituen BERRIGARako erredakzioan. Antza denez, 6. mailako ikasleek kazetaritza aztertzen dihardute egunotan, eta, Maria Angeles Olaizola eta Ines Arzelus irakasleen laguntzarekin, herriko aldizkaria zelan egiten den ikusteko bisita egin ziguten. Guztira, 40 gaztetxo inguru etorri ziren, eta BERRIGARA egiteko prozesu guztia azaldu genien. Era berean, aldizkariaren orriak zelan lantzen diren ikusi ahal izan zuten ordenagailuan. Batek baino gehiagok kazetari sena erakutsi zuen eta galdera dezente egin zizkiguten. Eskolan aldizkaritxo bat lantzeko asmoa dutela esan ziguten. Ikastolara itzuli aurretik, argazki bana atera genien Olaizolaren (goian) eta Arzelusen taldeei. Hurrengora arte!



-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefona: 943 76 16 63. BERGARA

 **ARRAÑAGA**
A U T O E S K O L A

BERGARARRAK MUNDUAN

LEIRE ALTUNA

28 URTE / IRAKASLEA / BOLTON (INGALATERRA)

“Lanean hasi baino lehen ingelesa hobetzeko etorri nintzen Ingalaterrara”

EDU MENDIBIL

Eskeintzen Ingelesko Irakasle ikasketak egin ondoren, denboraldi baterako Ingalaterrara joatea erabaki zuen Leirek, duela urtebete: “Lanean hasi baino lehen ingelesa hobetu nahi nuen, eta hona etorri nintzen. Hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan, hizkuntzarekin ez nuelako konfiantzarik. Lau bat hilabete eman nituen jatetxe baten sukaldari, Birminghamen, eta gero, Boltonera etorri nintzen. Anaia ere hemen bizi da, Helen emaztearekin, eta hasieran haiekin egon nintzen. Orain, bakarrik bizi naiz”.

Bolton Ingalaterrako ipar-mendebalean dago, Manchesteretik oso gertu. 300.000 biztanle inguruko hiri industriala da. Leire irakasle lanetan ari da: “St. Bede Church of England ikastetxe pribatuan irakasle laguntzaile naiz eta, era berean, 10-11 urteko neska-mutikoei gaztelaniako eskolak ematen dizkiet. Horrez gain, astean bi egunez, gaztelania erakusten diot guraso talde bati. Zortea izan dut lana topatzean, normalean hizkuntza irakasleak ez dituz-




telako behar, Ingalaterrako ikasleak 12 urterekin hasten direlako bigarren hizkuntza ikasten. Gaztelaniaz gainera, frantsesa edo alemana jakitea ere eskatzen dute askotan eskolak emateko”.

Edozelan ere, Leirek ez du gustuko Bolton, eta Lancaste-

“Aste bukaeretan Lancasterrera joaten naiz, han bizi da eta nire mutil-laguna”

rren lana topatzea gustatuko litzaioke, han bizi da eta Yves, haren mutil-laguna belgikarra: “Aste bukaeretan hara joaten naiz, normalean. Kendall herriko baserri antzeko baten bizi da Yves, eta lasai egoten gara. Mainer Gantxegi laguna ere Birminghamen bizi da eta harekin ere egoten gara askotan”. Gabonak Euskal Herrian eta Belgikan igaroko dituzte. Ingalaterran lan aukera handiak daudela onartu arren, Leirek argi dauka ez dela han betiko geratuko.

MINGAINARITIRAKA



Jose Mari Albisu

BERGARA KEKO LAGUNTAILLIA

Juan zan urtian jubilau zan, Lasabaster lantegian lanian eta Euskal Elbarrituen Kolektiboko boletuak saltzen jardun eta gero. Urteak daroia Bergara KEko laguntzaile lanetan.

Noiztik zara Bergara KEko bazkide? 30 bat urte izango dira bazkide naizela. Jubilauta egon arren, oraindik laguntzaile ibiltzen zara...

Bai, kuoten asuntua neuk eruatzen dot. Kirol bat?

Neri kirol danak gustatzen jat: futbola, pelotia, saskibaloia...

Eta gustau izan jatzun kirolari bat? Asko: Di Stefano, Indurain, Retegi...

Ze egingo dau Bergarak aurtent? Preferente mailla gogorra da, eta erdialdian sailkatzen bada, nahikua.

Partidu danak ikustera juaten zara? Bai, eta kanpoko partiduetara juateko ohitua be badaukat.

Asteko egunik onena? Zapatua edo domeka. Geure edadian gauza haundirik ez dogu egiten eta biziorik ez daukagu...

Sukaldari ona zara? Normala.

Janari eta edari bana? Legatza eta ura, esate baterako.

Bizitzan, lehentasuna zeri? Osasunari, duda barik.

Bestiengan gehixen apreziatzen dozuna? Lagun ona izatia eta apreziaua dotzula erakustia. Zorionez, holako jentia badaukat inguruan.

Zapatuan Elosura juateko asmorik? Ez dot uste, futbol partidua dago-eta.

Loterixan jokatzent dozu? Astero dezimo bat jokatzeko ohitua daukat.

200 millioi irabazi ezkeru, ze? Lehenengo, etxe berrixa erosiko neuke.

EDU MENDIBIL

NIRE BIDAIAHURA / Julen Alberdi

Alemania / 2002ko abuztuaren

Duela urtebete alemana ikasten hasi zenez, Alemaniara joateko gogoak zeukan Julenek: “Koadrilako lagun batek, Itsasok, Berlin ezagutu nahi zuela komentatu zidan, eta hara joatea erabaki genuen. Bilbotik Frankfurtera abioiez joan ginen, eta han ibiltzeko auto bat hartu genuen errentan”. Nagusiki, hirietan ibili dira: “11 egunean 1.800 kilometro egin genituen, eta, besteak beste, Frankfurt, Baden Baden, Friburgo, Munich, Dresden eta Berlin bisitatu genituen”. Bidaian aterpetxeak eta hotelak tartekatuz zitzuten lo egiteko. Eguraldiarekin ere zortea izan zuten, handik etorri eta egun batzuetara uholdeak izan ziren-eta eurak egondako toki askotan. Frankfurtek duen kontrastea gustatu zitzaion Juleni, “alde oso modernoa eta Erdi Arokoa daudelako, beste hainbat hiritan moduan. Baden Baden, berriz, sasoi baten hiri garrantzitsua izandakoa zela igartzen zen. Hango erromatar garaiko bainuak oso ondo daude. Friburgen egon ginenean jaialdi bat zegoen eta oso giro ona zegoen. Hango etxe koloretuak eta katedrala ere ikustekoak dira. Oihan Beltza gertu dago, baina autoa ez da han ibiltzeko modu egokiena”.




“Hamaika egunean 1.800 kilometro egin genituen autoz”

“Berlin bizitza handiko hiria da, oso interesgarria”

Alemania, Suitza eta Austria bitartean dagoen Constanza Lakuan ere egon ziren: “Toki turistikoa da, mikroklimatek, eta lakuak itsasoa ematen du”. Txekiatik gertu Dresden dago: “Gerrak eragindako kalteak nabariak dira oraindik. Hiri berrian artista talde batek berritutako etxetako fatxadak ikusgarriak dira. Azken lau egunak Berlinen eman genituen: bizitza handiko hiria da, interesgarria oso, eta, toki turistikoez gain, Berlin mendebaleko gaueko giroa gustatu zitzaigun. Postdameneko jauregiak eta lorategiak ikustera joatea ere merezi du”.

EDU MENDIBIL



Julen eta Itsaso, Frankfurteko Europa dorrean.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3



943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4

943 76 37 53



FUTBOLA

Preferente mailako taldeak denboraldiko bigarren garaipena lortu nahi du zapatuan

Juanina Garaik zuzendutako taldeak Berako Gure Txokoa taldea hartuko du zapatuan, Agorrosinen, 16:30ean

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak Gure Txokoa talde nafarraren aurka jokatuko du zapatuan, Agorrosinen, 16:30ean. Mahoneroek partidu bakarra irabazi dute, eta beharrezko dute hiru puntuak eskuratzea bihar.

Joan den zapatuan Donostian Berioaren aurka 0-0 egin eta gero, Bergara 13.a da sailkapenean, bost punturekin. Aurreko denboraldian ere mahoneroek bost puntu zituzten bosgarren jardunaldian. Juanina Garaik entrena-tzailearen iritziz, "aurten ere hobera egingo dugulakoan nago, eta horretarako beharrezkoa da etxeko partiduei eustea, Agorrosinen punturik ez galtzea".

Orain arte jokatutako bost partiduetatik bakarra irabazi du Bergarak, hirugarren jardunaldian, Agorrosinen, Real Unionen aurka (1-0). Bihar, zapatua, liga-ko bigarren garaipena erdiestea du helburu nagusi.

Gure Txokoa taldeari dago-kionez, azken jardunaldian Elgoibarren aurka galdu egin zuen, Beran (0-2). Nafarrek ere garai-bakarra dute eta Bergararekin berdinduta daude sailkapenean. Garairen hitzetan, "iaz, nahiko ondo ibili ziren eta ez da erraza izango guretako hiru puntuak eskuratzea".

Biharko partiduan Xabi Arregi golegile antzuolarrak ez du jokatuko, oportetan dagoelako. Era berean, Julen Berraondo eta Julen Aranburu gazteek ezin izango dute jokatu, min hartuta jarraitzen dutelako. Biharko partidua ondoen Hondarribian jokatuko du Bergarak eta hilaren 26an Aloña Mendi izango da bisitari.

BI PARTIDU GEHIAGO BERGARAN

Preferente mailako taldeaz gain, infantil taldeak ere Bergaran jokatuko du zapatuan. Gaztetxoek Anaitasunaren aurka jokatuko dute, Ipintzan, 11:00etan. Domekan, berriz, bigarren mailako gazte taldeak Aurrera Ondarroa hartuko du, Ipintzan, 16:30ean.



Bergarak ez du hasiera onik izan ligan, eta beharrezko du zapatuko partiduan hiru puntuak eskuratzea.

Pala Txapelketa jokatuko da Angiozarren urriaren 19tik aurrera

E.M.

Bikotekako Pala Txapelketa abian jarriko dute Angiozarren datorren zapatuan, urriak 19. Txapelketa Debagoieneko Zirkuiturako puntuagarria izango da. Izenematea urriaren 17ra arte dago zabalik.

Ohikoa denez, partiduak gomazko pilotarekin jokatuko dira. Partiduak zapatu arratsaldeetan izango dira, Angiozarko Arbiaska pilotalekuan. Parte hartuko duten bikoteak multzotan banatu eta gero, txapelketako lehen fasea liga sistema jarraituta jokatuko da eta sailkatzen diren bikoteek kanporaketa bidez erabakiko dituzte final-laurdenak eta finalerdiak. Finala, berriz, partidu bakarrera izango da.

Partiduak 35 tantora jokatuko dira. Txapelketan parte hartu nahi dutenek Kirol Zerbitzuan eman beharko dute izena, urria-



Txapelketan Debagoieneko bikoteek parte hartu ahal izango dute.

ren 17a baino lehen. Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako bazkide direnek bederatzi euro ordaindu beharko dituzte parte hartze-

arren eta gainerakoek, berriz, hamabi euro. Txapelketaren gaineko argibide gehiago 943 77 91 67 telefonoan jaso daitezke.

Gipuzkoako Txapelketako pilota partiduak gaur frontoian

E.M.

Bergara KEko pilotariak Gipuzkoako Txapelketako bigarren jardunaldiko partiduak izango dituzte gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:15ean. Hiru partidu ikusteko aukera izango da.

Gaurko jaialdian hiru partidu hauek izango dira Udal Pilotalekuan, 19:15ean: Bergara-Antiguoko, kadete mailan; Bergara-Añorga, nagusien bigarren mailan; eta, azkenik, nagusien lehen mailan, Bergarako bikotea Amezketako Zazpi Iturri taldekoaren aurka arituko da.

Herriko pilotariak aurreko aste bukaeran jokatuta zuten txapelketako lehen jardunaldia, etxetik kanpo. Kadete mailan Azurmendik eta Larrañagak osatutako bikoteak Txapagaineko pilotarien aurka galdu zuen, Ordizian, 22-21; gazte mailan Larrañaga-Altuna Bergarako bikoteak

ere tanto bakar bategatik galdu zuen, Hernanin, hango bikotearen aurka; eta nagusien lehen mailan Muguruzak eta Gutierrezek zorte hobea izan zuten, 21-22 irabazi zioten-eta Intxaurrendoko bikoteari, Donostian.

Bergaran partidu bakarra jokatuta zen lehenbiziko jardunaldian: banakako nagusien mailan Edu Samaniegok 6-22 galdu zuen Azkoitiko ordezkariaren aurka, Udal Pilotalekuan.

GABONAK ARTE

Gipuzkoako Txapelketan probintzia osoko taldeak ari dira lehia, eta Gabonak aldera izango dira finalak. Lehen jardunaldian ikusitakoaren arabera, berdintasuna da nagusi eta herriko pilotariak gogor borrokatu beharko dute datozen jardunaldietan. Horrela, Reyes Azkoitia Pilota Saileko ordezkariaren iritziz, "txapelketa aurrera doan neurrian ikusiko da gure pilotarien benetako maila".

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN

- 16:00: Pirulotarrak-THT. Artusamak
- 17:00: Artusamak-Etengabe. Agirreb.
- 18:00: Agirreb.-Getokuak. Belengua
- 19:00: Belengua-Pagomendi. Irubide
- 20:00: Irubide-Ganbara. Pagomendi

PARTIDU GUTXIAGO

Oraingo aste bukaeran bost partidu bakarrik jokatuko dira Labegaraietan, denak ere, domeka arratsaldean. Antolatzaileek adierazi digutenez, igerilekuetako gimnasioa Labegaraietara eramateak txapelketari eragin dio, ordu gutxiago dituztelako partiduak jartzeko. Gimnasia doan jendeak kiroldegiko aldagelak erabiltzen ditu, eta arazoak konponbide zaila du oraingoz. Gainera, kontuan izan behar da eskubalo eta saskibalo taldeek ere kiroldegian jokatzen dituztela partiduak. Zapatuan eta domekan hainbat partidu izango dira kiroldegian. Aretu futboleko arduradunak kezkatuta daude.

Behobia-Donostia lasterketan izena emateko epea urriaren 21ean zabalik

E.M.
Azaroaren 10ean jokatuko den Behobia-Donostia lasterketarako izena emateko epea urriaren 21etik azaroaren 2ra bitartean izango da zabalik. Joan den urteko ekitaldian Bergarako 150 korrikalari inguruk hartu zuten parte herri lasterketa horretan.

Fortuna elkartek antolatutako proba, ohikoa denez, azaroko bigarren domekan jokatuko da, azaroaren 10ean, hain justu. Partaideek 20 kilometroko ibilbidea izango dute eta aurten ere Bergarako korrikalari mordoak izango dira Behobiako irteeran. Izena emateko epea urriaren 21etik azaroaren 2ra bitartean izango da zabalik. 18 urtetik beherakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzearen eta 18 urtetik gorakoek, 18 euro. Proba amaitutakoan txipa itzultzen dutenei bost euro bueltatuko dizkiete.

Bergaran Lazkano oinetako dendan egin ahal izango da izenematea. Era berean, interesatuok Fortuna elkartearen jaso ditzaizkete lasterketaren gaineko xehetasunak, 943 45 57 33 telefono zenbakian.



Behobia-Donostia lasterketaren aurtengo ekitaldia azaroaren 10ean izango da.


ARTXIBOA

ESKUBALOI ETA SASKIBALOI PARTIDUAK
Bihar, zapatua, kadete mailako saskibalo taldeen partiduak izango dira. Lehen mailako kadeteek Iraurgiren aurka jokatuko dute eta bigarren mailako taldeak

Aldapeta izango du aurrez aurre. Bi partiduak 12:15ean izango dira, kiroldegian.

Bestalde, zapatuan, kadete nesken eskubalo taldeak anaia arteko partidua izango du,

10:00etan, eta 17:30ean, senior nesken taldeak jokatuko du. Domekan, gazte mutilen taldea Urnietakoren aurka arituko da, 10:00etan, eta senior taldeak Elgoibar hartuko du, 12:15ean.






San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

ELKAR ELEKTRAGINTZA

Koldo Elizalde 8
943 76 00 00

- Mota guztietako instalazioak



EGUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Winkler & Bore S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bouzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L. ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



UR kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikokoak

E izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

E, TXO!

GUREBAIAK / NAZIOARTEKO TXARTELAK

Txartelak ateratzeko epea zabalik dago

IKERKETA BEKAK

Euskó Jaurlaritzak bi ikerketa beka emateko deialdia egin du. Bi beka emango ditu honako gaien gaineko ikerketak egiteko: Trenbidea eta Hiria, Garraio Jasangarria, Hidrogeologia eta Peatonalizazioa, besteak beste. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. Informazio gehiago jaso ahal izango duzue Gazte Informazio Gunean.

AINTZANE IRIZAR

Orain arte urtarril eta abendu bitartean zegoen nazioarteko txartelak ateratzeko aukera. Aurten, baina, dagoeneko egin daitezke txartel horiek, eta, hain zuzen, 2003. urteko abendura arteko balioa dute.

Gazte Informazio Guneako arduradunek aditzera eman diguteenez, dagoeneko aukera dago nazio-

arteko ikasle, irakasle eta gazte txartelak ateratzeko. Gauzak horrela, Errotalde jauregian dagoen Gazteen Informazio Bulegora jo dezakezue txartel horietako bat atera nahi izanez gero. Gogora ezazue egunetan eta egubakoitzetan 16:00etatik 20:00etara dagoela zabalik bulegoa, eta zapatuetan, berriz, 09:30etik 13:30era. Hantxe emango dizkizute beharrezko azalpen guztiak, eta momentuan bertan emango dizuete txartela.

ABANTAILA HANDIAK

Txartel horiek abantaila ugari izaten dituzte: bidaiatzerako orduan hainbat deskontu lortu ahal dira txartel horiekin, baita ostatua hartzerakoan eta bestelako erosketak egiterakoan ere. Nazioarteko telefono deiak egiteko ere hainbat abantaila eskaintzen dituzte.


Orain atera ahal dituzuen nazioarteko txartelek 2003. urteko abendura arteko balioa izango dute.

Orain, esaterako, eski denboraldia gainean dugula-eta, horretarako ere deskontu garrantzitsuak eskaintzen dituzte.

Txartelak lortu ahal izateko, irakaslea edo ikaslea izatea eskaintzen dute, eta Gazte Txartelaren kasuan, berriz, 26 urte baino gutxiago izatea.

Era berean, txartelen eta eskaintzen dituzten deskontuen gaineko informazio gehiago honako webgunean: www.isic.org.

TIRABIRAKA / Gorka Ortega eta Jon Alvarez



Mirari

JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93



ARTXIBOA

Gaur egun bederatzi kidek osatzen dute Donostiako Udal Txistulari Banda eta zuzendaria Jose Ignazio Ansorena da.

Donostiako taldeak hamar lan egingo ditu, 19:30ean, osoko bilkuren aretoan

Donostiako Udal Txistulari Banda bihar udaletxean

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, Donostiako Udal Txistulari Bandak kontzertua egingo du udaletxeko areto nagusian, 19:30ean. Zuzendari lanetan Jose Ignazio Ansorena arituko da eta hamar obra egingo dituzte, euskal autoreenak ia guztiak. Emanaldia doan izango da.

Gaur egun bederatzi txistularik osatzen dute Donostiako Udal Txistulari Banda: Jose Ignazio Ansorena (zuzendaria), Aitor Arozena, Jose Antonio Altuna, Juan Vega, Olegario Izagirre, Juan Ramon López de Ulibarri, Agustin Laskurain eta Francisco Lera. Hala eta guztiz ere, tradizio handiko taldea da; joan den mende hasierako testigantzak jaso izan ditu Juan Ignazio Iztuetak, eta ordurako izen handiko taldea zen Donostiako Txistulari Banda. Gaur egungo taldeak ere Euskal Herrian egiten diren txistulari ekitaldi garrantzitsuetan hartzen du parte eta oso talde berritzailea da: lehengo musikari muzinik egin gabe arlo berriak ere jorratu ditu.

HAINBAT EMANALDI ETA DISKO

Donostiako Txistulari Bandak emanaldi ugari egin ditu; Donostiako Musika Hamabostaldian, Errenteriako Musikasten, Bilbon, Gasteizen eta Euskal Herriko leku gehienetan kontzertuak egiteaz gain, atzerrian ere hainbat eskaini ditu: AEBetan, Alemanian eta Austrian, esaterako.

Emanaldiez gain, iraupen luzeko lau disko ere argitaratu ditu. Lehenengoa 1981ean grabatu zuten eta dantza eta herri doinu bilduma bat da. Gero, 1983an eta 1984an Gipuzkoako dantzen gainerako beste hiru grabatu zituzten: *Gipuzkoako dantzak I, II eta III*. Horrez gain, beste talde batzuen grabazioetan ere sarritan hartu dute parte, eta bandaren zuzendariak, Jose Ignazio

Ansorenak, beste bost disko grabatu ditu bakarka: *Ansorenatarren Danbolina*, *Txistu hotzak*, *Le Basque*, *Haize hegoa* eta *Gipuzkoako soinu zaharrak*. Horrez guztiaz gain, taldeko kideak beste hainbat taldekin ere aritu dira grabazio lanetan.

Bihar Bergaran eskainiko duten emanaldian hamar lan egingo dituzte, ia guztiak euskal autoreenak.

Emanaldiko egitaraua

ERRALDOI MARTXA

Egile eta data ezezaguna
Moldaketa: Jose Maria González Bastida

LE BASQUE ETA BISCAYENNE

Egilea: Anonimoa/Marin Marais (XVIII. mendea)
Moldaketa: Jose Ignazio Ansorena

V. TONUKO SONATA

Egilea: Joakin Oxinaga (XVIII. mendea)

MARTXA HERALDIKOAK

Egilea: Miguel González Bastida (1920)

BERGARA

Egile eta data ezezaguna
Bizente Monzonek jasoa

BERDABIO

Egilea: Joakin Iruretagoiena (1898-1958)

IDIARENA

Egilea: Eduardo Gorosarri (1888-1957)

GURE HERRIA

Egilea: Tomas Garbizu (1901-1989)

TXORIAK (Urretxindorra-Zozoa-Txantxangorria-Kukua)

Egilea: A. Hilario Olazarán (1894-1973)

DREI MINIATUREN (Allegretto-Andante-Allegro)

Egilea: Karen Salomon (1959)

'Oliver' musikarekin Bilboko Euskaldunara urtarrilean

MONIKA BELASTEGI

Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrenaren ospakizunen barruan antolatutako 'Oliver' musikala Euskalduna jauregian egingo dute Bergarako Orfeoiak eta Musika Eskolak. Emanaldiak urtarrilean izango dira.

Bilboko Producciones Serranok *Oliver* musikalaren gainean erakutsitako interesak ahalbidetu ditu emanaldiok. 1999. urtean estreinatu zuten *Oliver*, eta orduan ere beste herri batzuetan eskaintzeko aukera aztertzen aritu ziren arren, parte hartzaile kopuruak, muntaiak eta aurrekontuak ezinezko egin zuen hori. Oraingoan, baina, produkzio etxea arduratuko da horrez guztiaz. Gainera, horixe izan da emanaldiko arduradunek produkzio etxeari jarri dioten baldintza,

David Azurtza Bergarako Orfeoi zuzendariaren esanetan: "Gu emanaldiaz bakarrik arduratuko gara, eszenatokia atontzeaz-eta produkzio etxea arduratuko da".

LAU EGUNEAN BOST EMANALDI

Emanaldiak Euskalduna jauregiko areto txikian izango dira, hau da, 600 lagun ingururendako lekua duen aretoan. Emanaldien egunak zehaztuta daude: urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, eta urtarrilaren 4an bi emanaldi egingo dituzte. Bestalde, arratsalde izango diren arren, ordua oraindik zehaztu barik dago. Hori horrela, datorren asteburutik aurrera entsegu ugari izango dituzte partaideek emanaldieta-rako guztia prest izateko.

Emanaldiok Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen Eguberri Kanpainaren barruan daude.



ARTXIBOA

1999. urtean estreinatu zuten *Oliver* eta 150 lagunetik gora hartu zuten parte.

LABUR

Urriaren 18an San Joxepe elkarteak antolatutako jaialdirako txartelak salgai

Datorren egubakoitzean, hilak 18, Udal pilotalekuan izango den musika jaialdirako sarrerak salgai daude. Ekitaldia Udazken Kulturaleko egitarauaren barruan dago, eta San Joxepe elkarteak antolatuko du. Honako talde hauek hartuko dute parte: Bergarako Ariznoa Gimnasia Erritmikoko taldeak; Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Los Pamplonicas jota taldeak.

Sarrerak honako tokietan daude salgai: kultura etxea, Lazkano zapata denda, Ariznoa taberna eta San Joxepe elkartea. Aurrez bost euro balio du sarrerak eta txarteldegian, berriz, sei euro.

Maider Azkaratek Ile apaintzaileen Espainiako Txapelketan hartuko du parte urriaren 20an

Maider Azkarate gazteak urriaren 20an Madrilen jokatuiko den Ile apaintzaileen Espainiako Txapelketan hartuko du parte. Lehiaketa ile apaintzaile profesionalak da eta parte hartzaileek hiru lan egin beharko dituzte: fantasiako ile bildua, gaur egungo ile bildua eta ile mozketa eta lehortzea.

Maider Azkaratek bi aldiz hartu du parte Gipuzkoako Txapelketan, iaz eta aurrean, eta bietan jaso ditu sariak: lehenengoan ikasleendako lehen saria eta ile apaintzaile abangoardistenaren saria; bigarrenetan, bigarren saria profesional mailan eta ile apaintzaile abangoardistarena.



ZAHARREN ETXETIK

Gurrutxaga eta Arenaza Argazki Lehiaketan irabazle

EDU MENDIBIL

Agustin Gurrutxaga eta Jose Antonio Arenaza izan dira Antzuolako eta Bergarako erretiratuak Kultur Hamabostaldirako antolatutako Argazki Lehiaketako irabazleak. Era berean, Elisabet Eguren eibartarrak Kartel Lehiaketako lehen saria eskuratu zuen joan zen egubakoitzeko sari bana-keta ekitaldian.

Jende ugari batu zen egubakoitzean San Joxepeko erakustokian. Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentea, Jose Miguel Ortigosa presidenteordeak eta Mariasun Plazaola idazkariak banatu zituzten sariak. Esan bezala, Elisabet Eguren Kartel Lehiaketako lehen saria jaso zuen. Eguren adierazi zigunez, "ilusio handia egin dit lehiaketa irabazteak, eta jasotako dirua ordenagailua erosteko inbertituko dut, diseinu grafikoa asko interesatzen zait eta. Bestalde, San Joxepeko erretiratuak oso aktiboak direla probatu izan dut, eta zorian eman nahi dizkiet".



Gurrutxaga, Eguren eta Arenaza, lehiaketetako irabazleak.



Agustin Gurrutxagaren 'Belarra batzen', lehen saria zuri-beltzean.

20 ARGAZKI


Argazki Lehiaketara 20 lan aurkeztu zituzten. Zuri-beltzean Agustin Gurrutxagak eraman zuen lehen saria, *Belarra batzen*

lanari esker. Irudia Atxarten aterakoa da, duela bi urte. Josu Altzelai legazpiarrak (*Lanean*) eta Juan Antonio Untzurrunzagak (*Don Pedro*) 2. eta 3. sariak

jaso zituzten, hurrenez hurren.

Koloretan, berriz, Jose Antonio Arenazak irabazi zuen lehen saria, udan Bardeetan hartutako *Bidean, oskarbi dago* argazkia-

rekin. Jose Antonio Untzurrunzagak 2. saria jaso zuen (*Con salud aun y todo*) eta 3.a Agustin Gurrutxagarendako izan zen, *Gazte egiten* lanagatik.

**Hamabostaldia hasi zen martitzenean**

Martitzenean hasi zen erretiratu Kultur Hamabostaldia. Diputazioko Manuel Errezola, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea edo erretiratu ordezkariek izan ziren Miguel Altunako arotoan. Enrique Arriola geriatrak egin zuen hasiera hitzaldia. Martitzenean, hilak 15, Vicente Madoz psikiatrick *Salud psíquica: vivir en plenitud* hitzaldia egingo du Miguel Altunan, 19:30ean, eta eguenean, hilak 17, Agustin Ozamiz soziologoak jardungo du, ordu eta toki berean.

LABUR**Urriaren 18ko jaialdirako sarrerak salgai**

Kultur Hamabostaldiaren barruan, Ariznoa gimnasia erritmiko taldearekin, Oñatiko Ganbara abesbatzarekin eta Iruñeko Los Pamplonicas jotariekin jaialdia izango da datorren egubakoitzean, urriaren 18an, Udal Pilotalekuan, 22:00etan.

Sarrerak San Joxepen erosi ahal izango dira hilaren 15etik 18ra, 11:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 19:00etara. Aurrez erosiz gero, 5 eurotan, eta txarteldegian 6 eurotan salduko dituzte.

Eramateko
oilasko
erreak
5€

943 76 48 08
Zubieta 26
BERGARA

**Zuri Beltz
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



BERGARA
Oier Terrazas
Urriaren 13an urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Aitziber Iturriaga
Urriaren 11n 3 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Marina.



BERGARA
Leire Altube
Urriaren 8an 7 urte.
Zorionak! Oihane, Ihintz,
Malen eta etxeokak.




BERGARA
Aitor Sansiñena
Urriaren 14an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Itziar Retes
Urriaren 12an 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Igoitz Retes
Urriaren 15ean 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Aritz Unamuno
Urriaren 13an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Josu Morras
Urriaren 18an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak, Unai eta Gorka.



BERGARA
Irene Jauregi
Urriaren 8an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Olaia Zengotitabengoa
Urriaren 9an 12 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Miren Arruabarrena
Urriaren 12an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta lagunak.



BERGARA
Andoni Arruabarrena
Urriaren 12an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta lagunak.



BERGARA
Izar Larrañaga
Urriaren 17an 2 urte.
Urte askotarako!
Manex eta gurasoak.



BERGARA
Eneko Cruz
Urriaren 10ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Unai Yera
Urriaren 11n 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Aitor Murillo
Urriaren 15ean 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baitxongua

ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Mujika

gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

Aldoka

Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02



ELKAR ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 11 / 129. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Hasi da erretiratuen Hamabostaldi Kulturala

AINTZANE IRIZAR

Urriaren 8an (martitzena), hasi zen Bergarako eta Antzuolako erretiratuen elkarteek antolatutako Hamabostaldi Kulturala. Urriaren 26ra arte hainbat ekitaldi egongo dira. Besteak beste, Antzuolako auzoetan barrena ibilaldia egingo dute urriaren 16an.

Hamabostaldi Kulturalaren barruan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Antzuolako eta Bergarako erretiratuen elkarteek. Aurten seigarren aldiz antolatu dute hamabostaldi hori.

Urtero gai jakin baten gaineko berbaldi, mahai-inguru eta bestelako ekitaldiak antolatzen dituzte erretiratuek; aurten, osasun integrala izango dute hamabostaldiko ardatz. Horren gainean arituko dira hamabost egun hauetan hainbat mediku, soziologo eta psikiatra, egitarauan ikus daitekeen moduan.

HAINBAT LEHIAKETA

Beste urteetan moduan, aurten ere hainbat lehiaketa antolatu dituzte hamabostaldiaren barruan. Alde batetik, hamabostaldiko azala ilustratzeko Kartel Lehiaketa antolatu zuten, eta Elisabet Eguren irabazi zuen. Argazki Lehiaketari dagokionez, berriz, Agustin Gurrutxagak irabazi zuen zuri-beltzeko atalean eta Jose Antonio Arenazak koloretakoan. Joan den egubakoitzean egin zuten sari banaketa ekitaldia, San Joxepe elkartearen.

IBILALDIA ANTZUOLAN

Esan bezala, Hamabostaldi Kulturalaren barruan antolatutako ekitaldi gehienak Bergaran izango dira. Datorren eguaztenean, baina, hilaren 16an, Antzuolan mendi ibilaldia egingo dute herri bietako erretiratuek. 15:30ean Kalebarrenetik irtengo dira, eta Lizarraga auzotik eta Ugarte-Torre, Bizkalatza, Jauregi eta Ira eta baserrietatik igaro ondoren,

Uzarraga auzora abiatuko dira. Uzarragatik, azkenik, Antzuolako erdigunera itzuliko dira Arimenditik behera. Ibilaldia bukatutakoan, luncha egingo dute Antzuolako erretiratuen elkarteak Zurrategin duen egoitzan.

Azkenik, esan behar da datorren egubakoitzeko musika ekitaldira joan nahi dutenek San Joxepen dituztela salgai sarrerak, urriaren 15etik 18ra bitartean.

Hamabostaldiko egitaraua

URRIAK 11, EGUBAKOITZA

18:00: Kultura eta aisialdi jaialdia San Joxepe elkartearen.

URRIAK 15, MARTITZENA

19:30: 'Osasun psikikoa: sasoiko bizitzea' izenburupean, hitzaldia egingo du Vicente Madoz mediku-psikiatraz, Miguel Altuna Institutuan.

URRIAK 16, EGUAZTENA

15:30: Kalebarrenean abiatuta, Antzuolako auzoetatik ibilaldia egingo dute.

URRIAK 17, EGUENA

19:30: 'Gizarte osasuntsu eta gaixo baten arteko aldea' izenburupean, hitzaldia egingo du Agustin-Ozamiz soziologoak, Miguel Altuna Institutuan.

URRIAK 18, EGUBAKOITZA

22:00: Ariznoa gimnasia erritmiko taldearen erakustaldia eta Oñatiko Ganbara abesbatza eta Iruñeko jotarien emanaldia Bergarako Udal Pilotalekuan.

URRIAK 22, MARTITZENA

19:30: 'Geure bizitza pozik bizi izatea' izenburupean, hitzaldia egingo du Jose Maria Setienek, Miguel Altuna Institutuan.

URRIAK 24, EGUENA


19:30: Osasun integralaren gaineko mahai-ingurua Vicente Madozen, Agustin Ozamizen eta Jose Maria Setiennen eskutik, Miguel Altuna Institutuan.

URRIAK 25, EGUBAKOITZA

19:00: Lehen eta bigarren hezkuntzetako ikasleendako, 'Bizi-ohitura osasungarriak' izenburupean antolatutako idazlan lehiaketako sari-banaketa ekitaldia egingo dute, Novedades aretoan. Jarraian, Barruti magoaren emanaldia izango dugu.

URRIAK 26, ZAPATUA

12:30: Amaiera ekitaldia, Miguel Altuna Institutuan.
14:30: Herri bazkaria, Zabalotegiko frontoian.



Zebrabideak egin dituzte Sagastin

Sagasti kale berria itxura hartzen ari da poliki-poliki. Uztailan, herriko jaietarako, asfaltatu egin zuten. Aparkalekuak ere egokitu zituzten kalearen alde bietan. Aurreko astean, berriz, zebrabideak egin zituzten. Abiadura murrizteko erabiltzen diren oinezkoendako pasabideak egin dituzte, hain zuzen ere; alturadun zebrabideak dira. Gogoratu behar dugu kale barruko errepidea noranzko bakarrekoa izango dela laster, eta pentsa daiteke Sagastin zirkulazioa areagotu egingo dela./A.I.

LABUR

Abenduan argitaratuko dute Ramírezen 'Bizitza pasarteak Antzuolan' liburua

Antzuola Herria IV. Ikerketa Bekaren emaitza abenduan izango dugu esku artean. Iñigo Ramírez de Okariz historiagile antzuolarri eman zioten beka hori, eta *Bizitza pasarteak Antzuolan* liburua argitaratuko du. XX. mende hasiera ezkerreko industrializazioa etorri arteko antzuolarren pentsaera erlijioso, politiko eta soziala zelakoa zen aztertu du Iñigok liburu horretan.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatze eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

ELKARRIZKETA

JON ARRETXE/IDAZLEA

“Istanbuletik Teheranera bizikletaz egin nuen bidaiia, Itsaso Beltzeko kostaldean zehar”

A.I.
Datorren egunean, hilaren 17an, ‘Istanbuletik Teheranera’ izenburupean diapositiba emaldia egingo du Jon Arretxek, Olanan etxean, 19:00etan. Iaz bizikletaz egindako bidaiia hori kontatuko digu Jon Arretxek.

Istanbuletik Teheranera, nondik nora ibili zinen?

Istanbulen hasi eta Teheranera bizikletaz egin nuen bidaiia. Hainbat aukera daude ibilbide hori egiteko, eta nik Itsaso Beltzeko kostaldetik egin nuen bidaiia. Istanbuletik zuzenean kostaldera abiatu nintzen, eta, kilometro batzuk egin ostean, Turkiako barnealdera sartu nintzen; Kurdistan zeharkatu eta Iranen sartu nintzen, Teheranera.

Noiz egin zenuen bidaiia hori?

New Yorkeko atentatua izan zenetik hilabetera egin nuen bidaiia. Berez, nahiko bidaiia lasaia izango litzateke, baina garai hartan egitea suertatu zitzaidan. Ni



abiatu nintzen ez zegoen bate-re argi estatubatuarrek zeinen kontra egingo zuten, denetik entzuten zen: Iran edo Irak atakatu behar zutela, edo Afganistan... Gainera, ez nekien hango jendeak zelan hartuko zuen gerraren kontu hori. Hortaz, nahiko

beldurtuta joan nintzen; bidaiia bertan behera lagatzekotan ere egon nintzen une baten.

Dena dela, bidaiia egin zenuen. Zelan joan zitzaizun?

Ondo, oso ondo; niretako oso sorpresa atsegina izan zen jendearen harrera eta jarrera. Kon-

tuan hartu behar da han denak musulmanak direla, eta aurreiritzi ugari ditugu komunikabideen eraginez. Buruan sartu digute fanatiko hutsak direla, zoro hutsak... Baina nik ikusi nuen benetan zelakoak diren, jende jatorra, arduratsua eta irekia. Egueneko emanaldian zer ikusi ahal izango dugu?

Guztira, 150 bat diapositiba eramango ditut, eta denetik dago: batzuk aukeratu ditut politikak direlako, beste batzuk bidaiako anekdota edo ezagututako pertsonaiaren bat azaltzen delako... Diapositibak ikusi bitartean, azalpenak ematen joango naiz, eta jendeak parte hartzeko aukera ere izango du, nahi dituen galderak egin edo azalpenak eskatzeko. Hainbat bidaiia liburu dituzu idatziak. Proiektu berririk baduzu esku artean?

Bai; oraintxe azkeneko uki-tuak ematen ari naiz bidaiia hone-txen gainean idatzi dudak liburuari. *Ekialdeko mamuak* izen-buruarekin, azaroan emango dut argitarara.

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain · Dendaria

Antzuolako anbulatorioa?

Idazteko aukera eskaini zidatenetik pentsatzen egon naiz; lehenengo pentsatu nuen abuztuan irakurri nuen notizia bati buruz idaztea: “Errugabe bat Guantanamo”. Abdul, 25 urteko afgano eskizofreniko bat, nekazaria, amerikar militarrek preso eraman zuten Al-Quaedako terrorista zela pentsatuz, oinezko bati oihu egin ziolako. Bere errua: leku eta momentu desegoki baten egotea. Hori urtarrilaren 21ean gertatu zen. Bost hilabete geroago amerikarrek euren errua aitortu eta Abdul etxean dago 40 urteko gizon baten

iturarekin. Ez dakit garbi adierazten sentitu nuena eta burutik pasatu zitzaizkidanak; hortaz, bakoitzak atera ditzala bere konklusioak.

Baina hori ere oroimenean geratu zaigu, eta gaur zertaz idatzi? Ama bezala, seme-alaben heziketan aurkitzen ditugun zailtasunei buruz? Liburu-saltzaile eta irakurle bezala ikusten ditudanak,...? Ez, horiek beste batera-



“A ze ‘engorroa’ den anbulatorio horretara deitzea!”

ko lagako ditut. Oraingoan jendeak dendan komentatzen duen gai bati helduko diot, askoren ahotan eta aspalditik entzuten ari naizen kexa bat; herriko mediku edo praktikantearengana joateko txanda hartzeko Bergarara telefonoz deitu beharra, hain zuzen.

Badira sarri joan beharra izaten dutenak ere, eta a ze “engorroa” den anbulatorio horretara deitu beharra!

Pazientzia eta denbora galtzeko modua, askotan kosta egiten zaie eta telefonoa hartzea; gastu ekonomikoa ere bada.

Ez al dago hori egiteko modu egokiagorik? Antzuolan bertan txanda hartzeko modua egin edo ordu batzuk finkatu ia egunero joan behar dutenendako, edo aukera eduki hurrengo egunerako ordua bertan hartzeko, edo... Aztertu al dira aukera guztiak? Udaletxeari tokatuko zaio lan hau, ezta?

Baina badaukat Udala zoriontzeko arrazoi bat ere, yoga antolatzeagatik. A ze arrakasta izan duen, gainera!

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Urriak 12
16:30: Antzuola-Arrate (2. erregion.)

PILOTA
Urriak 11 (Gipuzkoako Kluben arteko txapelketa)
20:30: Olalde-Real Soc. (Paletaz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA
Zumaiaiko B 1 Antzuola 0 (2. erreg.)
Antzuola 5 Aretxab. B 2 (Gazteak)

PILOTA
Gipuzkoako Kluben arteko txap.
Olalde-Gure Txeru (gazteak) 3-22
Olalde-Azkoitia (seniorrak) 22-20
Zumaiaiko-Olalde (paletaz) 22-35

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Juan Cruz
ARGAZKIAK

ZORIONAK!

Irailaren 30eko argaki kameraren zozketan sarituak: Gorka Garitano eta Miren Karmele Iparragirre

EOS 3000
28-80 zooma

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1.a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko urriaren 11 / 113. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


Repsolen gas biltegia, Gipuzkoako hamar enpresa kimiko arriskutsuenen artean

OXEL EROSTARBE

Europar Batasunak enpresa kimikoei dagokionez duen sailkapenaren arabera, Gipuzkoan 10 dira segurtasun aldetik arriskua duten enpresa kimikoak. Hauetatik 6 arriskutsuak dira eta 4 arrisku txikiagoak. Azken hauen tartean dago Repsolen gas biltegia.

Gure etxebizitzetara heltzen den gasa banatzeko, gas biltegia du Repsolek industrialdean. Segurtasunari dagokionez, Gipuzkoako 10 enpresa kimiko arriskutsuenen artean dago. Hala dio Europako Batasunean enpresa kimikoen segurtasuna arautzen duen Seveso II arteztarauak. Biltegiak eztanda egin edo suteak izanez gero dira arriskutsuak. Arriskuak eragozteko araudi bi bete behar dituzte: gas biltegiaren eta istripu larrien ingurukoa. Lehenak arriskuak eragozteko egiten diren azterketak arautzen ditu eta bigarrenak, istripua izanez gero hartu beharreko neurriak.

BESTE ENERGIEN BESTEKO ARRISKUA
Miguel Angel Pinedo Repsol-Euskadiko arduradunak GOIBEKO-



Ingurumenarendako arriskutsua ez den arren, segurtasunari dagokionez arriskutsua da Repsolek Elgetan duen gas biltegia.

KALERI adierazi dionez, biltegiaren istripurik gertatu ez dadin legeak esaten duena betetzen dute: "Elgetan dugun biltegiak administrazioak eskatzen dituen neu-

rri guztiak betetzen ditu. Gas instalazioaren ikuskapena lau urtean behin egiten da. Hala ere gure teknikariak ia eguneroko dauke Elgetan". Gas biltegiak duten

arriskua beste energiek duten parekoa dela esan digu. Istripua gertatuz gero, biltegiaren segurtasun balbulak automatikoki ixten dira, eta gasa bertan geratzen da.

Gipuzkoako enpresa kimikoetatik lau arriskutsuak dira eta sei arrisku txikiagoak

Istripurik ez gertatzeko behar diren neurri guztiak betetzen ditu Elgetako biltegiak

Gas biltegiak duen arriskua gainerako energiek duten bera dela esan digute Repsolen

JENTREBISTAK/ KZgunia erabiliko dozu?



LEIRE ETXEBERRIA
14 urte

Ez daukat ohiturarik Interneten jarduteko, baina ondo ikusten dot KZgunia zabaltzia. Ahal izan ezker, hara hurreratzen ahaleginduko naiz.



VIDAL TOYOS
67 urte

Ez dakit gauza askorik Interneten gainian. Interneten jarduten dabenendako interesgarria izango da KZgunia. Ez dot uste erabiliko dotenik.



AINZANE ZABALA
43 urte

Ondio ez dot Interneten jardun. KZgunia zabaltzia ondo ikusten dot, Internetekin gauza asko egin leike. Ia ikastaruetan parte hartu neiken.



J. JESUS ITURRIKASTILLO
46 urte

Neuk ez dot Interneten sekula jardun. KZgunia zabaltzia ondo pentsatzen jat; neuk ez dot astirik izango, baina erabiltzen dabenendako ondo dago.



ENERITZ URIZARBARRENA
23 urte

Interneten jardutia ez jat askorik gustatzen. KZgunia zabaltzia ondo ikusten dot. Halan, ez dakixanak mundu hori ezagutzeko aukeria izango dau-eta.

LABUR

Trenbide zaharra ezagutzeko, irteera erretiratuendako

Bihar da azken eguna Erretiratuaren Elkarteak antolatutako irteeran izena emateko. Datorren eguaztenean, hilaren 16an, Maltzaga eta Zumarraga arteko trenbide zaharra ikustera joango dira erretiratuak. Auto partikularretan egingo dute irteera. 14:30ean irtengo dira, plazatik, eta 18:00ak aldera itzuliko dira.

Oraindik izena eman ez dutenek badute aukera. Horretarako, Miren Villarrek in jarri beharko dira harremanetan, lehenbailehen.

**Webgune berri
eta dinamiko
izango du Elgetak**

Urriaren amaierarako webgune berriua izango du Elgetak. Goienak dihardu webgune berriaren, Udalaren enkarguz, eta dagoeneko nahiko aurreratuta dituzte lanak.

Dinamikotasuna irabaziko du guneak eta, gainera, albistegi elektronikoa bat ere izango du. Udaleko albistek zure e-postan jaso ahal izango dituzu, harpidetuz gero.

Ez dago abian, baina las-ter helbide zaharrean aurkituko duzu: www.elgeta.net.

**Eskola Kirola
zerbitzuaren
osagarria**

Eskaintza zabalagoa emateko asmoarekin, Eskola Kirola zerbitzuaren osagarri bat aurrera eraman nahi du Eskola Kirola Kontseiluak.

Kirol jolasen bitartez eskolarren hezkuntzan laguntzea eta jolasean ondo pasatzea bultzatu nahi dute. Ez da beraz norgehiagoka erako zerbitzua.

Saioak kiroldegian izango dira, eta zerbitzuak 18 euroko prezioa du. Interesatuak Eskolako Idazkaritzan eman beharko dute izena urriaren 15a baino lehen.

**Urteko bazkide
kuota kobratzeari
ekin dio Goibekok**

GOIBEKOKALE argitaratzeaz arduratzen den Goibeko Kultura Elkarteak aste honetan ekin dio bazkideei urteko kuota kobratzeari. Bazkide kuota 25 euro da, iazkoaren antzerakoa.

Kontu-korrontea emana duten bazkideek zuzenean bertatik ordainduko dute. Gainerakoei telefonoz dei egingo diete; horretaz Etor Sarasua eta Oskar Askasibar arduratuko dira. Goibekok 125 bazkide ditu eta kopuru horri eustea da asmoa.

**Estampaciones
Intxortak hasi du
denboraldia**

Dagoeneko hilabete inguru darama entrenatzen Elgetako saskibaloi taldeak. Aurten ez da aldaketarik izango Estampaciones Intxortan, iazko jokalariek jarraituko dute taldean. Eibarko Txapelketa asteburuan hasiko den arren, Estampaciones atsedean du bigarren asteburua arte. Aurten ere Liga eta Kopa irabazteko faboritoak dira elgetarrak.

ELKARRIZKETA

JUANJO MENDIZABAL/KZGUNEEN ARDURADUNA

“KZguneak Internetek jokoz kanpo utzi ditueni zuzenduta daude”

O.E.

Azaroaren 6an zabalduko dute kultura etxean KZgunea. Bi hilabetean Internet erabiltzen ikasteko aukera izango dugu. KZguneen programako zuzendari Juango Mendizabalek azaldu digu zer diren KZguneak.

Zein zerbitzu eskainiko ditu KZguneak?

KZgunean bi motatako zerbitzuak eskaintzen ditugu: batetik, Heziketa Zerbitzua deritzona eta, bestetik, Nabigatzeko Zerbitzua. Jendeak Internet erabiltzen ikastea lortu nahi dugu. Lehen pausoa, hortaz, Interneterako hurbilketa egitea da, eta hori Heziketa ikastaroekin lortzen dugu. Behin oinarrikoa ikasita, nork bere kontura Interneten nabigatzeko aukera ere emango dugu. Bigarren zerbitzua horretan datza, herritarrek Internet erabiltzeko aukera izatean. Zerbitzu hori ematerakoan tutorea egongo da, erabiltzaileek dituzten zalantzak argitzeko.

Heziketa Zerbitzuari dago-kionez, nori zuzenduta daude ikastaroak?

Heziketa Zerbitzuko ikastaroei dagokienez, bi eratakoak daude. Bietan ere Internet erabiltzeko oinarriko teknikak irakasten ditugu. Arruntak deritzegunak adin desberdinetako jendeari zuzendutakoak dira. Ikastaro hauek 22 orduko iraupena dute. Uda ezkerorretiratuak zuzendutako Nagusi Web ikastaroa ere ematen dihardugu, eta hori hamar ordukoa da.



KZGUNE

Horiez gainera, beste ikastaro batzuk ere antolatzen dituzue.

Badaude guk seminario praktikoa deritzegunak. Horiek, erabiltzaileen eskaeraren arabera, mota batekoak edo bestekoak izaten dira. Ordu baten edo bitan Internetek eskaintzen dituen gaiak lantzen dira: banka elektronikoa, erosketak elektronikoa,

lana zelan bilatu, bidaiak...

Zein adinetako jendeari daude zuzenduta KZguneak?

Batez ere, jende helduari zuzenduta daude, Internetek jokoz kanpo harapatu ditueni. Orain arte, etorri diren %60 baino gehiago 35 urtetik gorakoak dira. Internet ezagutzeko aukera aparta dira KZguneak pertsona horiendako.

IRAKURLIAREN TXOKUA

ERREALITATE MANIPULATUA

Gaztiok betiko moduan jarraitzen dogula baiña beste batzuk be ez dira aldatzen. Iraillak 20ko Goibekokaleko artikulua bat irakurri eta berriz be gaztetxian zuzendutako kritikak. Hain zailla da aurpegira gauzak argi eta garbi esatia ala? Indirektaz betetako zutabe bat derrigorra da? Gauzak esateko moduak eta moduak dare, esaldi bateko hitzen ordena egokixakin errealdadia asko illundu leike. Idazliak esaldi batekin jolasten irakurlian iritzixa manipula leike, nahitta edo nahi barik bere ikuspuntua argi eta garbi lagaz.

Tristia da gogoz kontra holako emon hartuko jokuan jautzia, baiña erantzutera derrigorritu ikusi doguz geure buruak. Horregaittik betiko moduan jarraitzen dogulako, zerbait esateko dagonian astero-astero barikutan egitten doguzen batzarretara etortzera gonbidatzen dogu jendia. Gonbidapen berdiña egitten dotsegu gure erabakixak (adibidez: sagardo egunian plazan egon ziran pankartak; “Demokrazia Euskal herriarentzat” eta “Faxismo-ari stop”, egin eta plazan ipintzeko proposamena onartzia) zalantzan ipiñi eta gogor kritikatzan ditueni. Pozgarria da, jarrera hori Gaztetxiak inporta dotselako leikela pentsatzia baiña penagarria da, holan ez dala konturatzia.

Gaztetxeko tortillia igual kipulia falta jako baiña beste batzunek gata sobran dauke.

ELGETAKO GAZTETXIA

IRTEERA

Eguarbitza garbitzera irtengo dira bihar

O.E.

Aurten be Elgeta inguratzen daben mendixetan dagan ote, arantza eta bedarrak garbitzeko urteeria antolatu dau Basarritarren batzordiak. Bihar izango da urteeria, goizeko bederatziretan plazan urten eta Eguarbitza aldera jango dira. Aurten be hori inguruoi aukeratu dabe-eta garbitzeko.

Aurreko urteetan moduan, aurten be jente dexente gerturatu dala espero dabe Basarritarren batzordekuek. Izan be, Eguarbitza inguru ote eta arantzaz beteta dago eta nahikua lan egongo da danontzako. Ahal dabanak erreminta eruateko eskatu dabe batzordetik.

Mendixa garbitu eta gero bazkarixa egingo dabe horretan jardun daben lagunek.

AIXOLAKO BIDIA KONPONTZEKO ASMUA

Astelehenian egin zeben Basarritarren batzordian Aixolako presako bidian konponketak egitteko dagon asmua izan zan gai eztabaidatuenetakua. Aixolako auzokuek proposatu dabe eurak egingo dituela konponketok. Eta horretarako bihar dan materiala eurak ordainduko dabe. Aixola Goikuaren eta Urbedeinkatuaren arteko bidia konpontzia da asmua. Horretarako Urkontzorziuan baimena bihar dabe, bidia presiaren onduan dago eta.



GOIBEKOKALE

Eguarbitza inguruak garbitzeko urteeria antolatu dau Basarritarren batzordiak.

ERRETRATU ZAHARRA

Jesus
Haurtxoaren
Eskola, 1945

Garai baten, Jesus Haurtxoaren Eskola zegoen gaur egun Mizpirualde egoitza dagoen tokian. Bergarako eta inguruko herrietako neskatila asko eta asko igaro ziren eskola hartatik, mojekin ikasteko. Alboko argazkia 1945ean ateratakoa da eta lau belaunaldi ezberdinetako neskak ikus ditzakezue bertan. Horra hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Lehen ilaran (jarrita): Mari Tere Bakaikoa, Bittori Ruiz, Maria Jesus Basabe, Mari Tere eta Ana Mari Laskurain, Mariasun González, Tere García, Consuelo Ibarra, Nuria eta Arantxa Díaz de Zerio eta Sor Josefa.

Bigarren ilaran: Mari Karmen Leturia, Begoña Ibartzabal, Arantxa Lazpiur, Kontxita González, Maria Dolores Arizabaleta, Rosa Mari Abajo, Marisol Muxika, Begoña Madariaga, Vega Biziola, Rosa Mari Larrañaga, Marili Altuna, Bego eta Mila Gallastegi eta, aurrean, Mariasun Lazpiur, Elisa Asenjo eta Kontxi González.

Hirugarren ilaran: Mariluz Zurba-



no, Mariasun Gardoki, Maria Angeles Ruiz, Isabel Gallastegi, Margarita Ezpeleta, Manoli Ubierna, Susana Quintana, Maite Suinaga, Mari Paz Jauregi eta Sor Eufemia.

Laugarren ilaran: Sor Encarnación, Mari Glori Lazpiur, Arantxa Arregi, Feli Suinaga, Sor Amalia (Ama Nagusia), Arantxa Egaña, Lide Oregi,

Maria Pilar Iturbe, Itziar Ezpeleta eta Martitxu Irastorza.

5. ilaran: Sor Rosario, Esther Farrás, Mari Lourdes Eguren, Miren Suinaga, Estefania Aragón, Agripina eta Juanita Ibañe eta Sor Prudencia.

Argazkia: Maite Suinaga

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Arrizuriaga
jauregia
udalaren esku

Hainbat urtean Ertzaintzaren komisaria egon da Arrizuriaga jauregia, aurtengo udaberri arte, hain zuzen. Bergarako Udalak eraikina erosi zion Jaurlearitzako Barne Sailari eta, Arrizuriaga zertarako erabiliko den erabaki bitartean, Jardun elkarteari jauregiko hainbat lokal utzi dizkio Udalak. Jardunen ikastaroak hantxe emango dituzte aurtan.



≈ 1994

Duela urte gutxira arte, Arrizuriagako kanpoko aldeak itxura eskasa zuen. Hesia aldatu eta hainbat konponketa egin zituzten.



2002

Udalak Arrizuriaga erosi zuen, eta Udaleko agintariak etorkizunean Udal Liburutegia hantxe kokatzeko aukera aztertzen ari dira.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Bi harmarri horiek kale berean daude. Zein kaletan?

PINTORE BERGARARRAK GAUR


Karlos Galarraga

EDU MENDIBIL

Gaztetxo zela hasi zen Karlos (Bergara, 1968) Mari Paz Alustizaren pintura eta marrazketa eskolak jasotzen. Handik urte batzuetara, lanean ziharduela, lana utzi eta Leioan Arte Ederrak ikasten hasi zen: "Ikasi baino gehiago, gauzak ikusten, margotzerakoan burua erabiltzen ikasten da". Pintura espezialitatea egin zuen, eta gazteei zuzendutako Hasiberriak lehiaketan Karlosen lanak nabarmendu zituzten hainbat aldiz. Orain, nahi baino gutxiago pintatzen du: "Lanagatik eta aste bukaeretan margotzen dut, Bearteko lokalean. Niretako, saltzeko asmo barik pintatzen dut. Udan Tarifan izan naiz, eta gustura ibili naiz hango paisaiak margotzen. Paisaiak eta egunkarietatik hartutako irudiak oinarri hartu eta koloreen artean sortzen diren harremanak atsegin ditut. Margolan sinpleak dira, formatu handikoak gehienak".

Azken erakusketa duela bi urte egin zuen. Pinturatik bizi izatea ia ezinezkoa dela dio: "Norberaren obra zabaldu arren, zaila da merkatuan sartzea, eta ez zait gustatzen galeristen mende egon behar izatea".

"Koloreen artean sortzen diren harremanak lantzea atsegin dut margolanetan"



E.M.

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Donostiako Udal Txistulari Bandaren zuzendaria?

- A/ Jose Ignazio Ansorena.
- B/ Aitor Arozena.
- C/ Jose Antonio Altuna.

2.


Nork egin zuen Erretiratuen Kultur Hamabostaldiko hasiera hitzaldia?

- A/ Vicente Madozek.
- B/ Enrique Arriolak.
- C/ Patxi Leturiak.

3.

Bergarako zein pilotalekutan jokatu da binakako pala txapelketa?

- A/ Arbiaska.
- B/ Osintxu.
- C/ Elorregi.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

CARLOS ZENGOTITABENGOA rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Carlos!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Erroterdi / Galde debalde: 1-B, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Urzante oliba-patsaren olioa

Litro bateko botila.

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Ur~bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

BERGARAN
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425